**Erakunde Txostena - GASTUAK**
***Memoria Organismo - GASTOS***

| ADM.ERAK.AUTON./ ORG.AUTON. ADVOS. | ATALA / SECCION | FUNTZIONALA / FUNCIONAL |
|---|---|---|
| **Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea** ***Instituto Foral de Asistencia Social*** | | |

## Erakundearen azalpena

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomiaduna da, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutakoa; eta berak Aldundiaren beraren titulartasunpeko gizarte zentroak ahalik eta eragingarritasunik handienarekin kudeatzea du zeregin.

Beraren jarduketak hiru arlo nagusiok ditu:

- Adinekoen gizarte zerbitzua. Laguntza eskaintza: 442 egoitza-plaza.
- Haur, Gazte, Familia eta Emakumeentzako Gizarte Zerbitzua. Laguntza eskaintza: 595 egoitza-plaza eta larrialdiko 9 plaza.
- Minusbaliatu eta Bazterkeriaren aurkako Borrokarako Gizarte Zerbitzua. Laguntza eskaintza: 240 egoitza-plaza eta Alzheimer-a dutenentzako 45 plaza.

Hau da, GUFEk 1.277 egoitza-plazaren eskaintza osoa du.

Lan hori egiteko, 2012 bukaeran, 882 langileko plantila izan du; aurrekontua, berriz, 110.142.147,62 eurokoa izan da.

Erdietsi den betearazpena % 86tik gorakoa, ona da, baina ohar batzuk egin behar dira.

1. kapituluan, aurrekontuaren betearazpena % 83tik gorakoa da. Gehikuntza hori hitzarmenaren eta ezarritako erabakiaren aplikazioari zor zaio, ekitaldiko ordezkoen ordu-konpentsazioagatiko ordainketari ere.

## Descripcion del Organismo.

El Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia es un Organismo Autónomo creado por la Diputación Foral de Bizkaia para gestionar con la mayor eficacia posible los Centros Sociales, cuya titularidad corresponde a la propia Diputación.

Su actuación se concentra en tres grandes áreas:

- Servicio Social para Personas Mayores, con una oferta asistencial de 442 plazas residenciales.
- Servicio Social para la Infancia, Juventud, Familia y Mujer, con una oferta asistencial de 595 plazas residenciales y 9 plazas de urgencia.
- Servicio Social para Personas con Discapacidad y Lucha contra la Exclusión, con una oferta asistencial de 240 plazas residenciales y 45 plazas de alzheimer

Es decir, el I.F.A.S. tiene una oferta global de 1.277 plazas residenciales.

Para desarrollar su labor dispone, a finales del año 2012, de una plantilla de 882 trabajadores, con un presupuesto que asciende a 110.142.147,62 euros.

La realización alcanzada superior al 86% es considerada como buena, si bien es preciso realizar algunas observaciones.

En el Capítulo 1 la ejecución del presupuesto es superior al 83%El incremento producido es producto del Convenio y Acuerdo aplicado y al pago por compensación horaria de los sustitutos.

2. kapituluan, % 88tik gorako betearazpena egin da, batik bat gastuari eusteko politikaren ondoriozkoa, baina hasieran planteatutako helburuak betez.

4. kapituluaren betearazpena % 99koa izan da. Betearazitako aurrekontu guztia Laguntzetarako Batzarraren arrazoi-hartzetik eta aplikaziotik dator eta baita aurreko ekitaldiko kredituaren gerakinean egin zen atxikipenaren erregularizazioaren eragiketagatik ere.

Inbertsioei buruzko 6. kapituluan, betearazpena % 78tik gorakoa izan da.

7. kapitulua: Ekipoen eskuraketa, LANTIK. % 99an burutu da.

8. kapituluko aurrekontuaren betearazpena 2012an % 28tik gorakoa izan da. Betearazpena Langileei Aurrerakinak emateko Batzarrak hartutako erabakiak aplikatzeari dagokio.

2012ko ekitaldian, erakundearen Kontratazio Mahaia 7 aldiz bildu da obrak, ekipamenduak eta hornidurak adjudikatzeko.

## Langileak

Langileak kudeatzea zaila da. Iragan ekitaldian ezarritako gidalerroen arabera egin nahi izan da, hau da, legezkotasuna zehatz-mehatz beteaz; horrezaz gainera, gizarte bakea lortu nahi izan da, gure bezeroei kalitatezko arreta eskaintzeko asmoz.

Langileak kudeatzearen arazorik gaitzena langileak ordezko gisa kontratatzearena da. 2012. urtean zehar, 8.185 bitartekotasun-kontratu baino gehiago egin dira, denak GUFEk xede horretarako egin dituen zerrendetako hurrenkeraren arabera eginda.

En el Capítulo 2 ha habido una ejecución superior al 88% debido fundamentalmente, a una política de contención del gasto sin dejar de cumplir los objetivos planteados en inicio.

La ejecución del Capítulo 4 ha sido del 99%. Todo el presupuesto ejecutado proviene de la toma de razón y aplicación de la Junta de Ayudas y asiento de regularización por retención efectuada por Remanente de Crédito del ejercicio anterior.

En el Capítulo 6 de Inversiones la ejecución es superior al 78%.

Capítulo 7: Adq. Equipos LANTIK, realizado al 99 %.

La ejecución del presupuesto del Capítulo 8 en el ejercicio 2012 ha sido superior al 28%. La ejecución corresponde a la aplicación de los acuerdos adoptados por la Junta de Anticipos al Personal.

En el ejercicio 2012 la Mesa de Contratación del Instituto se ha reunido en 7 ocasiones, habiendo sido convocados para la adjudicación de obras, equipamientos y suministros.

## Personal

La gestión de personal resulta compleja. Se ha tratado de llevar de acuerdo a las líneas establecidas en el ejercicio pasado, es decir, desde un estricto cumplimiento de la legalidad, buscando una paz social que contribuya a dar una atención de calidad a nuestros clientes.

El punto más delicado de la gestión de personal es la contratación de personal para hacer sustituciones. Se han realizado en el año 2012, 8.185 contratos de interinidad, todos ellos según orden en las listas que al efecto tiene confeccionadas el I.F.A.S.

| ADM.ERAK.AUTON./ ORG.AUTON. ADVOS. | ATALA / SECCION | FUNTZIONALA / FUNCIONAL |
|---|---|---|
| **Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea**<br>***Instituto Foral de Asistencia Social*** | | |

Laneko segurtasun eta osasunarekin lotuta, jarraitu egin da laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak praktikan jartzen. Prebentzio-jarduera ezberdinak GUFEko prebentzio-zerbitzutik bertatik zein kanpoko prebentzio-zerbitzutik (Mutualia Prebentzio Sozietatetik) egiten dira. Jarduera horien artean, nabarmendu behar da arriskuen ebaluazioa etengabe eguneratzen dela, eginiko ikuskapen eta neurketen arabera. Gauza bera egiten da langileen osasunarekin, kasu bakoitzean dagozkion protokoloen arabera.

Horrez gain, esan behar da GUFEk BFAko eta horren erakunde autonomoetako Segurtasun eta Osasun Batzordean parte hartzen duela.

Prestakuntzak toki oso garrantzitsua betetzen du GUFEren laguntza lanen barruan.

2012an prestakuntza arloaren gastua zentzu handiagoz erabili da Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean, lan egiteko ondoko bide hauek garatzeko asmoz:

Barruko prestakuntza: Barruko prestakuntzan 2012ko ekitaldirako ezarri ziren ekintza guztiak egin dira. Emaitza moduan esan behar da 42 ikastaro burutu direla.

Kanpo prestakuntza: GUFEko langileak kanpo ikastaroetara joan eta biltzar, jardunaldi eta bestelako topaketetan parte hartzea bultzatu eta koordinatzea.

GUFEko Kalitatea Hobetzeko Taldeak aldez aurretik finkatutako parametroetan lan egin du eta, bertan, EFQMaren araberako hobekuntza prozesuarekin jarraitzen dute.

En relación a seguridad y salud laboral se prosigue con la puesta en práctica de la diversa normativa sobre prevención de riesgos laborales. Las distintas actuaciones preventivas se llevan a cabo tando desde el servicio de prevención propio del IFAS como desde el servicio de prevención ajeno (Sociedad de Prevención Mutualia). Entre estas actuaciones cabe destacar la constante actualización de la evaluación de riesgos en función de las inspecciones y mediciones realizadas así como la vigilancia de la salud del personal conforme a los protocolos procedentes en cada caso.

Cabe añadir que el IFAS participa en el Comité de Seguridad y Salud de la DFB y sus OOAA.

La formación ocupa un lugar muy importante en la tarea asistencial del I.F.A.S.

En 2012 se ha racionalizado el gasto en formación en el Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia con el objetivo de desarrollar las siguientes líneas de trabajo:

Formación interna: Se han realizado la totalidad de acciones formativas internas previstas para 2012. Como resultado han tenido lugar 42 cursos.

Formación Externa: Potenciación y coordinación de la asistencia de los trabajadores del I.F.A.S. a cursos externos, congresos, jornadas y otros encuentros organizados por otros organismos.

El Grupo de Mejora de la Calidad del I.F.A.S. ha realizado los trabajos dentro de los parámetros previamente establecidos y continúan con el proceso de mejora conforme a la E.F.Q.M.